

## Maldan behera

Luzea izan da bidea. 1960ko hamarkadaren hasieran abiatu nintzen ekonomiaren kezkarakin. 1960ko hamarkadan ekonomiari buruzko hamaika lan irakurri nituen, Marx-en *Alokairua*, *Prezio eta Irabazia* liburuxka ederrarekin hasita.

1970eko hamarkadaren lehen urteetan, kapitalismo industrialak zen nagusi, edo behintzat hala uste genuen. Gutxienez, espainiar estatuan kapitalismo industrial basatian bizi ginen.

1972an, *Anaitasuna* aldizkarian ohiko kapitalismo industrialari buruz hasi nintzen zertxobait plazaratzen<sup>1</sup>.

Euskara 1970ean hasi nintzen ikasten. Portugaleten 1970ean *Ez Dok Amairu*-koek aparteko emanaldi bat eman zuten: *Baga, Biga, Higa sentikaria* izenekoa. Frankismoa garaia zen. Garrantzi handiko aurkikuntza zen: jende jantzia, hiritarra, euskara hutsean aritzen zena, lanari buruz, zapalkuntzari buruz, gure gizarteaz kantatzen zuena. Emanaldia entzutean, neure buruari esan nion: *hauxe da nirea, hauxe da behar nuena, bilatzen aritu nintzena*. Ekitaldi hark erabat markatu ninduen!

*O tempora o mores.*

Musikaz aparte, euskal munduan gehien markatu ninduen Gabriel Aresti zen, Arestiren lanak irentsi eta arakatu nituen. Arestiren prosa eredugarri izan dut, aspalditik gainera, ene lan apurretarako<sup>2</sup> eta gidari gisa.

Eredu gisa, jarraian daude nire lehen euskarazko artikuluak, Imanol Berriatuak zuzenduak, oraintxe Euskaltzaindiak digitalizatuak eta garai hartan erabiltzen zen euskara baturanzko ereduan.

Eta poesia?

Segituan *Maldan behera* azaltzen da, baina ez Gabriel Arestirena.

Kapitalismoak ere bide luzea egin du<sup>3</sup>. Ekonomiak bere ildoari ekin dio, lehengo kapitalismo industrialak erabat aldatuz. Kapital finantzarioa nagusi bilakatu da. Are gehiago, finantza-sistemak bereganatu egin du ekonomia erreala. European esaten den moduan, *Finanzkapital uber alles*.

Argi dagoenez, egungo kapitala, batez ere eta bereziki, finantzarioa da. Kapitalismo industrialak, eta berari loturik zeuden Marxen plusbalioaren analisiak, balio-teoriari buruzko aspaldiko eztabaidak labur samarrak geratu dira. Izan ere, dena, edo ia dena zeharkatu du

<sup>1</sup> Ikus <http://www.unibertsitatea.net/otarrea/gizarte-zientziak/ekonomia/anaitasuna-aldizkariko-zenbait-artikulu-1972-1973>.

<sup>2</sup> Oroimen modura, ikus <http://www.scribd.com/doc/57188202/Gabriel-Aresti-remembrance>.

<sup>3</sup> Ikus <http://www.unibertsitatea.net/otarrea/gizarte-zientziak/ekonomia/zenbait-mugarri-1> eta <http://www.unibertsitatea.net/otarrea/gizarte-zientziak/ekonomia/ene-bidea-my-way>.

kapital finantzarioak. Bera da nagusi, bera da agintzen duena, bera da ikertu behar dena. Berari aurre egin behar zaio.

Dena den, Marx-ek zutik irauten du<sup>4</sup>, beste era batera noski. Marx-engandik jaso dudana kapitalismoaren etengabeko bilakaera aztertzeo grina izan da. Grina hori motorra izan da nire bizitzan.

Orain *Maldan behera* ...

### **Maldan behera... (poesia ez dena)**

(Herria 2000 Eliza, 182 zenb., 2002. Galdera batzuei erantzun behar genien. Hemen erantzun horren zati batzuk besterik ez ditut aipatuko.)

... Gogoratu behar da, soilik gogoratu, Hitler botere politikora hauteskunde demokratikoaren bidez iritsi zela. Espainiar Estatuan, aldiz, demokrazia formalaren bidez PP-koek boterea lortu ondoren, eta nazioarteko baldintzak zein estatuaren 'barneko' kondizioak direla medio, 'faxismo demokratiko' bat martxan ezarri dute. Honetan, eta euskaldunen kontra, PP eta PSOE estrategia politikoa bat eginda daude: aitzakia ondokoa izanik, alegia, edozein aldarrikapenen aurrean, espainiar konstituzioa da muga. Kontua da hemen (hego aldean) bi nazioren arteko gatazka (gatazka historikoa beste aldetik) baten aurrean gaudela: hego Euskal Herria versus Espainia. Hortaz, argi dago espainol agintariek lortu nahi dutena, alderdi politikoen legea dela-eta eta espainiar konstituzionalismoa dela aitzakia, hego Euskal Herria behin betiko Espainian integratzea, estatutu administratibo biren bidez: Nafarroa garaikoari ei dagokiona eta Baskongadei omen dagokiena. Horixe da estrategia sakona. Gero, noski, taktika batzuk martxan jarriko dira, baldintzen eta aukera ezberdinen arabera.

Estrategia argi, garbi eta sakon horren aurrean taktika batzuk erabiliko dira, zenbait epaileren laguntzaz. Horretarako, primeran datozkie 'barnean' egin izan diren eta egiten diren hanka-sartze galantak eta etengabekoak, borroka armatua dela eta ez dela, eta delako kale borroka dela medio.

Gainera, tartean, ezker abertzaleen eta beste indar abertzaleen artean liskarrak, gatazkak eta are enfrentamendu zibila lortuko balituzte, hainbat hobeto; eta liskar horiek 'baketzeko' polizia autonomikoa gai izanen ez bada, espainiarrek badauzkate indar polizial eta militar nahikoa gauzak baretzearen.

Lortu nahi dituzten ondorio zuzena eta epe laburrean Batasuna legez kanpo uztea bada ere, eta jadanik lortua dute gutxienez epe ertainerako, haien estrategia epe luzera eta sakonera doa, hots, alderdi abertzale guztiei nolabaiteko muga jartzea: espainiar konstituzioa. Konstituzio horren barruan 'dena' izanen dateke legala eta 'legitimoa'; hortik kanpo ilegalak eta ez-legitimoak.

---

<sup>4</sup> Ikus <http://www.unibertsitatea.net/otarrea/gizarte-zientziak/ekonomia/xix-mendeko-marxengandik-xxi-mendeko-diru-teoria>.

Beraz, hementxe daukagu aztertze eta hausnartzeko ildo nagusia. Horretarako kanpoko baldintzak zein 'barneko' kondizioak berak ere azertu, arakatu eta analizatu behar dira. Barneko kondizioen artean, alderdi abertzaleen arteko egon daitezken harremanak ere analizatu behar dira. Horrez gain, ezagutu genuen Lizarra-Garazi Ituna berriz ere analizatu behar da, antzekoren bat edo berriz ere martxan jartzeko. Zer dela-eta porrot egin zuen saio hark? Zertan okertu ziren batzuk eta besteak? Zer-nolako baldintzetan jar daiteke berriro indarrean antzeko itun bat? Menia derrigorrezkoa da ala ez? Eta beste hamaika galdera.

Horrelako analisiak egiteko ez dago batere dudarik ortodoxorik ortodoxoenak ere ETaren ekintzak analizatu beharko dituela politikoki, aktibo/pasibo mailan nahi bada, zeren argi baitago borroka armatuak, nahi ala ez, erabat baldintzatzen duela abertzaleen artean egon daitezkeen akordioak eta harremanak gauzatzea. Hori guztia kontuan hartu gabe zer-nolako inguruan, Europar Batasunean barnean, bizi garen eta zer-nolako kontrako eraginak dauzkan egun borroka armatuan ari izateak.

Kanpoko eraginen artean, globalizazioa behin eta berriz aipatzen bada ere, argi dago nazioarteko ekonomiaz, politikaz eta nazioartean egon diren aldaketak hausnartu beharrean gaudela, informatika-iraultza berri honetan. Beste aldetik, ohiko sozialismoa pikutara joan da, betiko eta zorionez. Argi dago sistema horiek zapaltzaileak besterik ez direla izan. (Baina hemengo ortodoxia oraingoz (!) Kubako paradisura joaten da. Noiz arte jasanen ditu gure herriak ezkerren izenean (!) horrelako atzerapen politikoa eta ekonomikoa?)

Epe laburrean nire esperantza bakarra hauxe da: ELA eta LAB, aspaldian egin zuten moduan, nolabaiteko akordiora iristea: gutxienezko programa abertzale minimo bat, subiranotasunaren ildotik, demokratikoa eta bortxarik gabekoa. Horien inguruan hainbat indar sozial, gizarte mugimendu eta abar bil daitezke. Alderdi politikoaren bidez, egun, ez dago gauza handirik egiteko.

Maldan behera goaz. Nahiko agudo gainera. Noraino? Noiz arte? Menia hautsi zutenek, guztiok, adierazi behar dute, argi eta garbi, zer dela-eta apurtu zuten. Urrezko aukera izan zen ETAkoei irteera duina ematearren, indar abertzale desberdinen jokaerak bateratzearen, presoak hurbiltzearen,... Jendea pozik zegoen (geunden), ilusioz beterik eta ilusio hori zapuztu dutenek esplikazioa eman beharko dute noizbait.

Independentzia<sup>5</sup> da helburu, ez inolako autonomismoa. Hori gero eta garbiago geratu behar da. Epe laburreko eta epe ertaineko proposamenak loturik egon beharko lirateke independentziaren aldeko estrategia baten barruan. Independentzia baldin bada gure helburua —eta independentzia hori interdependentzia baten barruan kokatu behar denik ez dut uste inork ukatuko lukeenik— autodeterminazioaren bidez lortu behar da. Hortaz, autodeterminazioa da *hic et nunc* etengabe aldarrikatu behar dena. Kanporako autodeterminazioa Euskal Herri osorako, nahiz eta barnerako, taktika mailan eta epe ertainean, Baskongadetarako, Nafarroa garairako eta Iparralderako, **konfederazio** moduko antolaketa bat edo antzekoren bat proposatzea.

---

<sup>5</sup> XXI. mendeari aurre egiteko, Euskal Herriaren independentzia politikoa *ezinbestekoa*, beharrezkoa da, baina ez nahikoa. Beste ekonomia mota bat behar da dauzkagun arazoak konpontzearen. Orain **finantza-kapitalismoaren** aroaz bizi gara.

Gutxieneko akordioa ez da soilik posible, halabeharrezkoa baizik, hil ala bizikoa. Indar abertzaleen artean itun berri bat lortzen ez bada, gureak egingen du. Kontua da ea nola iristen den akordio horretara. Agian sindikatuen, agente sozialen eta gizarte mugimenduen bidez martxan jar daiteke epe laburrean nolabaiteko aurre-akordioa. Lizarra-Garazi itunean egon ziren indar guztien artean eginahal berezi batzuk gauzatu behar dira, behin eta berriz, gauden putzu eta *impasse* honetatik irteteko.

Espainolek lortu bide dute nahi izan dutena, gatazka, borroka gure artera ekartzera, eta gu itsu-itsuan, autonomismoaren izenean, independentziaren izenean, Ertzantzaren izenean, eskubide demokratikoen izenean, edo kristoren izenean amu pozoitsua irentsi. Barruraino... Bapo. Espainola banintz, pozik egonen nintzateke egoera aldrebestu honetan.

### **Maldan behera, bigarrenez: orain, zer?**

#### **I. Euskal Herriko Konfederaziorantz (“*Tiempo de soluciones*” delako liburuan, 2003)**

XXI. mendean sartu gara eta hemengo ezker ofizialeko asko oraindik lotuta daude XIX. mendeko eskemei, informatika-iraultzarekin batera bizi ditugun aldaketa sakon eta berriak kontuan eduki gabe. Teoria zaharkituak eta kapitalismo oso atzeratuak diren erregimen zapaltzaileak -deitutako sistema sozialistak barne- oraingoz dira goraiatuak zenbait bazterretan, eta izen ponposoen aitzakiaz -maiuskulaz, beti maiuskulaz, idatzitako Iraultza, Justizia, Bakea, eta abar-, batzuek oraindik sistema zaharkitu horiekin amesten dute. Gure aurrean gertatu diren sakoneko aldaketak analizatu eta ikertu barik, guretariko askotxok ez dugu ezer ikasi eta antzinako bulgatak errepikatzen ditugu exegesi berri gisa.

##### *1. Autodeterminazio (AD) eskubideaz hitz bi*

Gros Espiell-ek<sup>6</sup> ongi zehaztu du herriaren definizioa eta berari dagokion autodeterminazio eskubidea. Estatuaren aldetik agertzen den kontzeptuen nahasketa interesatua argitu nahirik, hona hemen Gros Espiell-ek emandako zenbait definizio eta ohar egungo nazioarteko zuzenbideari jarraituz.

*Herria* gizatalde bat da ohiturek, ideiek, erabilerek, nahiek eta helburu komunek bateratzen dutena. Kultura, hizkuntza eta zenbaitetan erlijioeko lotura historikoek betetzen duten gizatalde kontzientziaduna da herria. Etorkizun komunerako kontzientziak eta borondateak batzen duten giza kolektibitatea da herria. Egun ezin da egon inolako internazionalismorik herrien borondateetan, hots, jendearen desioetan oinarritzen ez denik.

*Nazioa* gizataldea ere da, baina nazio bat herri batzuek osa dezakete. Herriak dira, ez nazioak, nazioarteko zuzenbideko subjektuak.

---

<sup>6</sup> Ikus Gros Espiell, H. (1998) El sentido actual del nacionalismo. Pueblo, nación y estado en el derecho internacional y en el derecho constitucional, *in Nacionalismo vasco. Un proyecto de futuro con 100 años de historia*. Tomo XI. Bilbao: Sabino Arana Kultur Elkargoa.

*Estatua* ez dator bat, nahitaez, herriaren edo nazioaren kontzeptuekin. Estatu batean herri batzuk eta nazio batzuk ere egon daitezke.

Herria eta nazioa errealitate historikoak, soziologikoak dira. Estatuak egitura eta eraketa juridikoa inplikatzen du, hots, sistema juridiko konkretu bat.

AD eskubidearen tituludunak herriak dira, edozein herri. Lehen esan bezala, edozein herrik dauka nazioarteko zuzenbide garaikidean onartutako autodeterminazio eskubidea. Eskubide hori ez da ahitzen<sup>7</sup>. Beti bizirik egoten baita. Beste aldetik, herriaren erabaki askea suposatzen du AD eskubidearen praktikak<sup>8</sup>.

Estatuen lurraldetasunaren osotasunak (*'integridad'* delakoak) ADren praktikarekin talka egiten du, baina ADren eskubidea da oroz gain babestu behar dena<sup>9</sup>.

## 2. Abiapuntuak

Aipa ditzagun egun Euskal Herrian dauden abiapuntuak eta ikus dezagun ea zer-nolako prozesua hobets daitekeen independentzia politiko eta ekonomikoa lortzeko, subiranotasun ekonomikoa, politikoa eta monetarioa burutzearen.

Argi dagoenez, beste arlo batzuk ere -arlo linguistikoa, kulturala, sindikala, ekologikoa, irakaskuntza- eta hezkuntza-arloa, eta abar- ukitu beharko lirarteke prozesu horretan. Guri dagokigunez, eta arlo horiek guztiek daukaten garrantzia ukatu gabe, politikari lotuko gaitzaizkio lan txiki honetan. (Ekonomiak daukan garrantziaz ez dago inongo dudarik.)

Abiapuntua aipatzerakoan, batzuek Estatutua aipatzen dute. Oso gardena da estatutuak, pluralean, aipatu beharko direla. Baita Ipar Euskal Herriko egoera berezia ere.

Badakigu, ongi jakin, nominalismo hutsean mugitzen dela hainbat jende gure herrian. Gure herriaren izena bera ere manipula daiteke, eta manipulatzeko da, ez dakigu zer-nolako egoera iluntzeko. Lehengo 'Euskadi' hura ere hiru probintzietara mugatu nahi du zenbaitek. Horregatik, Euskal Herria hobesten dugu, hau da, zazpi probintzietakoa den herriaren izena.

Egungo abiapuntuaz hitz egiterakoan, hiru abiapuntu desberdin kontuan hartu behar dira: Euskal Autonomi Erkidegoa, non bete gabeko Gernikako Estatutua martxan dagoen;

---

<sup>7</sup> *"El derecho a la libre determinación tiene una virtualidad permanente. No se agota o se extingue en el ejercicio inicial del derecho. Subsiste siempre vivo."*

<sup>8</sup> *"El ejercicio del derecho a la libre determinación, impone necesariamente el libre pronunciamiento del pueblo."*

<sup>9</sup> *"El difícil e inestable equilibrio entre el derecho a la libre determinación de todo pueblo y la integridad territorial de los estados ha sido encarado en múltiples instrumentos emanados de las Naciones Unidas. (...) para que la integralidad territorial de los estados prevalezca (...) debe tratarse de un estado que garantice el derecho de libre determinación de los pueblos en su territorio, que han de poder expresar su voluntad con total libertad. Así el principio de integralidad territorial del estado deja de ser un criterio absoluto y pasa a ser un principio, importante y significativo, pero limitado y relativo, que existe si el estado respeta el derecho de la libre determinación de los pueblos que viven en su interior y que, en el ejercicio de este derecho, puedan elegir su "status" jurídico.*

*He sostenido, y sigo afirmando, que el derecho a la libre determinación es hoy un caso de "jus cogens", es decir de norma imperativa de Derecho Internacional."*

Nafarroa garaia, bete gabeko Foru Hobekuntzarekin; eta Iparraldea, oraingoz eratu gabeko Departamentuarekin. Beraz, abiapuntua bera nahiko zehatz gabekoa da. Gure herriko hiru gunek desberdin horietan, politika eta ekonomia mailan, martxan dauden prozesuak ez dira erabat zehazturiko legediak eta ongi araututako marko politikoak, azken hogeitun urte hauetan eztabaidan eta tira biran egon diren prozesuak baizik. Prozesu horietan, harrigarria bada ere, Madrilek hainbat eskuduntza luzatu dio Nafarroa garaiari Baskongadetatik aldentzeko asmoz. Gainera, egia da, estatutu desberdinen bidez lorturiko eskuduntzak nolabaiteko 'babesleku' modura har daitezkeela. Izan ere, bi estatu zentralisten arriskua beti dago gure gainean, Demoklesen ezpata balitz bezala. Horrek ez gaitu izutu behar. Alderantziz, lorturikoa kontuan edukiz, independentzia lortzeko zenbat falta denaz hausnartu behar da behin eta berriz, eta horren alde *demokratikoki* borrokatu, borroka gozagarrien eta antimilitaristen bidez.

### 3. Euskal **Konfederazio** berrirantz

Politika mailan autodeterminazio-eskubidea izan behar dugu helburu hurbila, eskubide hori martxan jartzeko noski. Argi dagoenez, *kanpo*-autodeterminaziorako, Euskal Herria, bere zazpi probintziekin, herri soil eta bakarra da eta soilik berari, ez beraren edozein zatiri, dagokio nazioarteko mailan onarturik dagoen autodeterminazio-eskubidea. Hortaz, inoiz gure herria nazioarte mailan herri eta nazio gisa agertuko bada, hiritar guztien desioen, nahien edo gurarien bidez azalduko da. *Barne*-determinazioa beste kontu bat da. Barnerako, gure herriak dauzkan berezitasun guztiak kontuan eduki behar dira. Haien artean eta lurraldetasunari dagokionez, egungo egoeran hiru gunek oso berezietan azaltzen gara; guri gustatu ala ez, gauzak horrelakoxeak dira. Horrexegatik edo Euskal Herriko bateratasun bat lortzearren, *barne-konfederazioa* proposatu dut hainbat artikulua eta lekutan.

Barne-konfederazioaren ikuspuntutik, egungo abiapuntu desberdinetatik hamaika proposamen egin daitezke hiru gunetan eta arlo ezberdinetan: kulturean, ekologian, sindikalgintzan, hizkuntzan eta irakaskuntzan, ekonomian,...

Ekonomiaren ikuspuntutik, kasu, euro-gunearen barruan mugitzen gara. Egoera ekonomiko latza -stagflazioa, kanpo-zorra, kapital espekulatzailaren ondorioak eta abar luzetxoagaitzearren egin behar diren azterketatik eta aldaketatik lekutan gaude.

Beraz, Euskal Herriaren barnerako, konfederazioa onartzen bada, hamaika eginkizunen aurrean gaude, gaurko egoera desberdinetatik abiatuz. Horretarako martxan dauden bi estatutu desberdin horiek 'betetzea' derrigorrezkoa bada ere -eta hementxe badago zer egin!-, kontua da betetze horretan ez geratzea, aurrerantz joatea, inolako beldurrik gabe gero eta subiranotasun politiko eta ekonomiko handiagoa eskatzea, harik eta kanpo-autodeterminazioa indarrean jarri arte.

Arazo bakarra, eta ez makala, nolabaiteko taktika mailan datza. Zer egin? Printzipio mailan aritzea? Independentzia bihar goizerako eskatzea? Ala, gauden egoera desberdinetatik independentziarantz joan daitezkeen zenbait ildo politiko eta ekonomiko asmatzea? Hortxe dago, ene ustez egungo kezka nagusia. Eta arazo honetaz behin eta berriz eztabaidatu beharrean gaude guztiok.

Maila estrategikoan nahikoa argi daude zenbait puntu. Kasurako, politika mailan Europan egun edozein estatuk daukan maila politiko berbera (askoz hobea, noski) lortzea. Zer dela-eta, bestela, espainiarrak edo frantsesak gu baino europarragoak izatea? Guk baino eskubide gehiago edukitzea? Bigarren mailako herritarrak izanen al gara euskaldunak Europa berrian?

Beste gauza batzuk ez dira hain garbi. Zerbait esatearren, batzuek 'sozialismoa' aipatzen dute, baina inolako zehaztasunik gabe. Okerrago, 1980ko hamarkadaren bukaeran oraingoz hemengo batzuek *Comecon*-en integratzea proposatzen zuten, eta oraindik ere, gure egunetan, hainbat 'iraultzaile' Kubara joaten dira fedearen bila.

Abertzaleen arteko programa minimo bat martxan jartzearen, menia eskatzea begietako gaixotasuna (*sic*) omen da, 2002ko Aberri Egunean irakurri ahal izan genuen moduan. Orain, berriz ere, PNV da etsaia eta Ibarretxe Aznar-ekin eta Giscarc-ekin parekatua izan da. Harrigarria! PP-ren tranpan erori gara, lehen PSOE-ren tranpan erori ginen modura. PP-koek markatzen dituzte joko politikoaren arauak, eta erantzunak prestatzen, 'erresistentzian' galtzen dugu daukagun indar apurra. Tartean ezin da ezer kritikatu. Badakizue, badaezpada, isilik. Isilik, lasai, orain ez da denbora. Orain hobe ezer ez egitea. Lasai!

Isilik eta 'aurrera bolie'. Ez dakigu baina bolie karratua ote den eta atzera edo albora joaten ote garen. Ez dio axola. Batzuek ba omen dakite. Gu isilik. Badakizue, badaezpada ez mugitu. Besteek esanen digute noiz, nola, non eta zer egin. Haiek badakite. Guk ez. Lasai, bada.

Eta horrela doa gure historia. Euskaldun fededun herri honetan kristautasuna alboratu bide da eta marxismoan egon diren joerarik atzerakoienak, zapaltzaileenak, totalitarioenak aukeratu, onartu eta bultzatu dira. Ez dugu ezer ikasi. Ezkerrak porrot egin duela onartzen ez dueno, jai du. Kontua ez da atzoko 'sozialismo' terminoari adjektibo ederrak atxikitzea - 'identitarioa', 'partehartzailea', 'berria', eta ez dakit zer gehiagorik-. Kontua da ea nola lor daitekeen hori guztia hala ekonomian (batez ere) nola politikan edo kulturaren zein irakaskuntzan.

Atzoko lagunak 'traidore' bihurtzen direnean, eta espainiar estatuan totalitarismo berria martxan jartzen ari denean, lehengo eskemak behin eta berriz errepikatzen dira ezkerraren izenean, eta inolako lotsarik gabe kritika debekatzen da, autokritika geure buruari debekatzen diogularik (!?). Alderantzizkoa da kontua: debekatuta dagoen kritika derrigorrezkoa da, gainera gero eta zabalagoa eta argiagoa izan behar du. Orain eta hemen!

Ekonomia mailan, eurotan aritzen gara. Zer suposatzen du Euskal Herrirako euro-gunean mugitzeak? Zeintzuk dira Euskal Herriak euro-gunean dituen arazo ekonomikoak? Zernolako aldaketa makroekonomikoak egin beharko lirateke Euskal Herrian burujabetza ekonomikoa eta subiranotasun monetarioa lortzearen? Nola uztar daitezke independentzia politikoa eta subiranotasun ekonomikoa? Nazioarteko Moneta-Fondoaz eta Mundu-Bankuaz ba ote daukagu ezer esatekorik, diskurtso aspergarrietatik kanpo? Arduratzen gaitu kanpo-zorrak? Konponduko al da kanpo-zorren arazoa barkamenaren bidez, hots,

karitatearen bitartez? Ba ote daukagu neurriren bat kapital espekulatzailerako erraldoiaren kontra?

Konfederazioaren kontzeptua argi edukiz, hots, estrategia garbi egonez, politika mailan taktika bereziak erabil daitezke Euskal Herriaren 'bateratasuna' lortzearren. Izan ere, ezein batasunek ezin suntsi ditzake tokian tokiko berezitasunak: Arabarrak zein Enkarterrikook eroso, eta pozik, egon beharko ginateke geure nazioa eraikitze proiektuan, zuberotarrak edo Erriberakoak egon daitezken modura.

Kontua ez da esatea Euskal Herria eta Nafarroa txanpon beraren bi aldeak direla, Euskal Herria kontzeptu kulturala eta Nafarroa adierazpen politikoa. Hori, onenean ere, nominalismo hutsa izan daiteke. Izen baten azpian ez dago ezer. Egun berdin dio proiektu politikoari nafar estatua, euskal estatua edo Euskal Herriko estatua deitzeak. Kontua da ea nola iristen den euskal estatu horretara gaurko baldintzetatik. Horixe da apustua eta horixe da erabaki behar duguna.

Egun inoiz baino gardenago daukaguna autodeterminazio-eskubidearen aldarrikapena da. Errepikakorra izan ninteke, baino behin eta berriz esan behar da ezen eskubide hori edozein herriri, herri osoari dagokion eskubidea dela. Hortaz, Euskal Herri osoa da autodeterminazio-eskubidedun bakarra. Ez Araba, ez Zuberoa, ez dira autodeterminatzeko subjektuak.

(...) Nafarroatik datorkigun historiografia berria Kanpionen ildotik abiatu da. Kanpionek ere, Euskal Herriaren egituraketari buruz, Nafarroaren inguruan, Baskoniako *Konfederazioa* aipatu zuen. Baskoniako lurraldeen konfederazioan Euskal Herriaren etorkizuna koka daiteke; lurralde desberdinen konfederazio hori lortzeko, egungo baldintza konkretuetatik hasi behar dugu, ez orain dela mila edo bost ehun urtekoetatik. Egia da Nafarroa izan zela euskaldunen erresuma historikoa. Baina Euskal Herriak aro historiko anitz bizi izan ditu historian zehar. Egungo gizartea da erabakitzailea, ez orain dela mila urtekoa. Euskal Herriko gaurko indar politikoek, sindikalek, agente sozialek eta gizarte mugimenduek dute hitza. Egungo nafar erkidegoa, Baskongadak eta Iparraldea bateratu behar dira, hiru esparru ezberdin horiek eraman ditzaketan erritmo desberdinez kontuan edukiz.

Euskal Herriak ez du ukan inongo iraganaldi paradisiakorik. Eta etorkizun paradisiakorik ere ez du ukanen. Aroan aroko eta aldian aldiko jendeak erabakiko du zer nahi duen eta nola lortu nahi duen, desioen, nahien, beharrezan eta baldintzen bidez. Horixe da, eta ez besterik, AD gauzatzea. AD ez da behin betiko erabiltzen, beti bizirik eta irekita den eskubidea baizik (Gros Espiell, 1998).

Prozesuan gaude, interdependentzia batean Euskal Herri independente bat martxan eta indarrean jartzeko etengabeko prozesuan. Berreskuratze historiko eta, era berean, gizarte informatiko berri honetan, eraikitze berri honetan hamaika zeregin dago eta, zoritxarrez, horretarako eztabaida eta proposamen gutxi. Proposamenak, edozein eskutatik datozela, eztabaidatzekoak dira.



Euskal Herriaren etorkizuna Suitza txiki baten antzerakoa izan daitekeela idatzi du orain dela gutxi Manex Goyhenetche<sup>10</sup> historialariak. Berak dioenez, Europako nazioen mapatik kendu zuten nazio bat. Konkistapen horren ondoren, herri hori zapalduta egon da eta oraindik horrela, hots, menperatuta segitzen du. Hortaz, Nafarroak badu legitimitate historikoa eta hori ezin zaio kendu. Baina maila praktikotan Baskoniako lurraldeen konfederazioa ikusten du Manexek Euskal Herriaren etorkizuna. Puntu honetan, ados gaude historialari baxenafarrekin.

#### 4. Euskal langileriaren eginkizunak eta betebeharrak

Badakigu sindikalgintzan langile asko ez daudela sindikaldurik. Egia esan, langile gehienak sindikatuetatik kanpo daude. Badakigu, halaber, langileriaren artean segmentazioa gero eta hedatuagoa eta zatikatzaileagoa dela, eta, nola ez, badakigu, ongi jakin, langabezia mingarria dela. Egoera horretan bazterrak astindu zituen 1995eko ELA-LABen agiriak, nazio-arazoa ozen aldarrikatu zuelako.

ELA eta LAB sindikatuak nazio-arazoan izan zuten ausardia oraingo *impasse* honetan ere kemen berbera izan lezaten nahi nuke, baita arazo sozial eta ekonomikoan antzeko ausardia ere eduki lezaten. Langileen interesen alde, langabeziari eta inflazioari aurre egiteko erantzun egokia eta beren proiektuak aurrera eraman ditzaten.

(...) Langileriak erreminta kontzeptual berriak behar ditu. Burgesia langabeziari eta inflazioari irtenbidea emateko gai ez denean, monetarismoaren ildotik neurri gogorak eta izugarritzko erasoak jasaten ari garen uneon, euskal langileriak bere burua altxatu beharra dauka, bere esparru nazionalan, Euskal Herri osoan, bere proiektu ekonomiko eta soziala gauzatu ahal izateko.

Gauzatze horretan, Sokal-ek eta Bricmont-ek liburu zoragarri batean<sup>11</sup> argi frogatu dutena aipatu behar da, alegia, egun oso zabaldurik dauden erlatibismo epistemologikoak eta kulturalak, iluntasuna eta nahastea gizarte zientzietan sarraraziz, aparteko ahulezia ekarri diotela ezkerriari. Ez da iluntasun gutxiagokoa ohiko marxismo leninismoaren eskematxoetan murgiltzen dutenen diskurtso patetikoa.

Sokal-ekin eta Bricmont-ekin batera esan behar da ezen *“ezein ezker mugimendu ezin dela eraginkorra izan gertakari zientifikoei, balore etikoei eta interes ekonomikoei dagozkien arazoak seriooki aintzakotzat hartzen ez badira”*.

Gaur egun aro berri batean bizi gara hala politikan nola ekonomian. Hamaika gauza dago egiteke gure herrian. Saia gaitezen egiteko horiek burutzen. Gauza askotxo ikasi dugu. Haien artean zer-nolako proposamenak baztertu, alboratu behar diren. Duda gutxi dago horretan. Utz diezaiogun leku bat eztabaidari, eztabaida zabalari, ezagutzen ez dugunak ez baikaitu beldurtu behar. Utikan nominalismoa! Gora eztabaida!

---

<sup>10</sup> Zoritxarrez Manex joan zitzaigun. Berarekin geratu nintzen (gure Andolinen hiletan, 2004an), Iparraldean egondako hainbat aldetaz hitz egiteko: aldaketa batzuk benetan harrigarriak! Handik gutxira mendian hil zen.

<sup>11</sup> Ikus Sokal, A. eta J. Bricmont (1999) *Imposturas intelectuales*. Barcelona: Paidós.

Gure aurrean, gure begien aitzinean egia potoloak eta borobilak deuseztatu, desagertu dira. Aldaketa gehiago etorriko dira, inolako dudarik gabe. Defenda dezagun, beraz, argi daukaguna: euskal hizkuntza, kultura, irakaskuntza... Egin diezaiozun leku, txikia bada ere, ekonomian dagoen eztabaidari. Erabil ditzagun bide demokratikoak euskal demokrazia berri bat eraikitzearen. Eta mundu korapilatsu eta aro zail honetan, erabil dezagun arrazoa gure proposamenak plazaratzeko eta bultzatzeko, irrazonalkeriak putzura besterik ez baikaitzake eraman. Izan ere, gure gizarteak pairatzen dituen gaitzak -langabezia, inflazioa, kanpo-zorra eta moneten arteko ezegonkortasuna, espekulazioa eta finantza-burbuilak, arlo ekonomikoa soilik aipatzearen- ez dira inolako mirari esoterikoren eta irrazonalkeriaren bidez desagertuko.

## II. Ibarretxeren planaz hitz bi (“Soberanías y pacto” delako liburuan, 2005)

(Galderak eta erantzunak daude artikulu horretan. Erantzunen zati batzuk aipatuko ditut.)

Garrantzi handikoa da Gasteizko Parlamentuan eta gehiengo osoz plan hori onartu izatea. Izan ere, planaren onarpena ez dagokio Gasteizko gobernuari edo zenbait alderdiri, parlamentuari baizik. Hemendik aurrera, Baskongadetako biztanleek aukera izanen dute plan horren inguruan egon daitekeen eztabaida eta gero beren bozka emateko. Argi gera bedi, plan horren bozketarekin ez dira bukatzen Euskal Herri osoaren arazoak, baina hasiera on bat da, baldin eta onartzen bada Euskal Herriaren arazoek hiru espazioren (Baskongadak, Nafarroa Garaia eta Iparraldea<sup>12</sup>) **konfederazioan** izan dezaketela irtenbidea. Hortaz, konfederazio horretarako urrats garrantzitsua da.

“Estatutu Berriaren proiektua” aurrerapausoa izan daiteke, baldin eta hego Euskal Herriko indar politiko eta sindikal abertzale guztiek onartzen badute Euskal Herriari dagokion autodeterminazio eskubidea gauzatzekoan, egun jasaten dugun zatiketarik urratsak eman behar direla. Izan ere, oraingoz, ezinezkoa da egun loriatsu eta zoriontsu batean, Euskal Herri osoko biztanle guztiek ‘E’ egun horretan bozka ematea. Gure herria, zoritxarrez, ez dago batuta, bateratu egin behar da, konfederatu egin behar da. Horretarako, baina, non gauden eta nora goazen kontuan hartu behar da, bestela jai.

Baskongadetan egin dena, Iparraldean eta Nafarroa Garaian ere egin daitekeela onartuko bagenu, beste eszenatoki batean egonen ginateke.

Itun bakarra estrategiari dagokio. Hirukoek eta Batasunak onartuko balute gure herri osoaren etorkizuna konfederazio batean gauza litekeela urrats garrantzitsu bat izanen litzateke. Taktika mailan hainbat akordio egin daitezke, baina funtsera joan behar da, non goazen eta nora joan nahi dugun: horixe da eztabaidarik garrantzizkoena, funtsezkoena. Horretan zenbait akordiotara iritsiz, taktika-mailako beste akordioak ez lirateke izanen hain zailak.

---

<sup>12</sup> Esan bezala, Manex Goyhenetche joan zitzaigun; berarekin hitz egiteko parada joan zen. Baina oso adierazgarria eta interesgarria da E. Bidegain-en liburu berria: “*Iparretarrak. Erakunde politiko armatu baten historia*”, Larresoro: Gatzuzain, (2007). Autore berak *Argia* astekarian, 2007ko abenduaren 23an, 2116-2117 zenb., 51-53 orr., honela dio: “...Egun jende horiek aldarrikapen bera egiten dute. IK gogor kritikatu zutenek autonomiaren bidea hartu dute orain.”

Zertan amore eman beharko lukete Batasunak eta Hirukoak? Amore eman ezertan ere ez. Bakoitzak bere proiektuak dauzka. Hirukoa ez da homogeen. EAJ eta EAren artean hamaika desberdintasun daude, batez ere estrategia mailan. EAJ eta Izquierda Unida delakoaren artean, eta azken honen eta EAren artean dauden ezberdintasunak bistakoak dira. Kontua da hiru horien artean nolabaiteko akordio batera iritsi zirela, eta badirudi akordioak zutik dirauela.

Batasunak EAJrekin eta EArekin eztabaidatu behar du, negoziatu behar du, estrategiazko akordio edo itun batera iritsi behar du. Horixe da giltza.

Zer urrats eman dezake Eusko Jaurlaritzak epe laburrean aukera politiko guztiak legeztatuak izan daitezkeen? Arazoa ez dagokio Gasteizko Parlamentuari, PSOERI baizik. Espainiako gaur egungo presidentek nahi izanez gero, arazoa, gutxienez, epe laburreko arazoa, konponduta egongo litzateke.

Baina PSOEK bere kontuak ateratzen ditu. Batasuna Parlamentuan ez egonik, Hirukoek zailago daukate gehiengoa lortzea edozein arazoren aurrean, eta batez ere, Ibarretxe planaren aurrean. Badirudi ETA nahiko kontrolaturik dagoela, eta ekintzak gauzatu gero, estatuari izugarritzko jokoa emango lioke abertzaletasunari erasotzen jarraitzeko. Beste aldetik, egia da borroka armatuarekin bukatuz, PSOE Espainiako gobernuan luze egon daitekeela. Hortaz, hortxe daukate bidegurutzea PSOEkoek. Haiek jakingo dute zer egin eta nola egin.

Zein izan beharko luke Batasunaren estrategia legeztatua izan dadin? Aipatzen den "terrorismoa gaitzestea" delako lelo hark ez dirudi funtsezkoa denik. Kontua ez da iragana, etorkizuna baizik. Eta etorkizunean, Anoetako mezua benetakoa bada, ETARI tokatzen zaio mugitzea, menia luzatuz. Bestela ohiko gurrupil zoroan murgiltzea izanen litzateke. Estatuak (PSOEK eta PPK barne) bere ikasgaia ikasi dute. ETA ez da oztopo espainiar estatuarekiko, euskaldunentzako baizik. Hori ez ikustea itsukeria galanta da.

PPK ez daki demokrazia zer den. PSOEK ere sasi-demokrazia honetan badaki mugitzen. Kontua ez da 'demokrazia' aipatzea, zeren demokrazia hori espainiarra baita. Eta 'demokrazia' horretan euskaldunok beti galtzailea, hala hego Euskal Herriko biztanle guztiak nola Baskongadetakoak.

Kontua da ea espainiar estatuak onartuko duen Baskongadetako jendeak bozkatuko lukeena, ea gobernuan dagoen PSOEK onartuko lukeen bozketa hori. Horixe da adostu behar dena haiekin. Kanadako esperientzia hor dago.

Zein dira Estatu Espainiarrak izan ditzakeen zailtasun ideologiko, faktiko eta legezkoak Eusko Jaurlaritzaren eskariei muzin egiteko? Haiek oso garbi daukate 'arazoa'. Espainia gune demokratikoa bat da, eta Espainia osoan bozkatzen dena Espainia osoak onartu behar du. Hortik ez dira, berez, mugituko. Mugitzeko, mugiarazteko, nazioarteko maila kontuan eduki behar da. Zer gertatu den Kanada, zer Ipar Irlandan, ... holako kasuak sakonki aztertu behar dira.

Zein urrats eman beharko lituzkete ondoko estamentuek epe laburrean gatazkak konpontze-bidean aurrera egiteko? Gatazka konpontze bidean aurrera egiteko “eman beharko lituzkete urratsak” oso garbi daude. Guztiok onartzea gatazka historiko bat dagoela, une oso garrantzitsu batean gaudela, denetaz eta dena eztabaida daitekeela, Euskal Herriko jendeak erabakiko duena onartu behar dela, borroka armatuak gaur eta hemen ez daukala zentzurik, ‘demokrazia’ ez dela bukatzen parlamentuetan, gizarte-eragileek parte hartu nahi dutela edozein erabaki garrantzitsutan.

Gakoa da ea zer egingo duten, ea epe laburreko alderdi-interesei edo eta aipatu ezinezko diren beste interes motatakoegi begiratuko dieten ala ez, gatazkarekin bukatzeko borondate politikoa daukaten ala ez. Hemengo sindikatuek Quebec-en egondako esperientziatik ikasiko duten ala ez.

Zein une politikotan dago Euskal Herria normalizazio politikoa erdietsi eta euskal gatazka konpontze-bidean? Euskal Herriko jendeak argi daukagu aukera ederra dagoela gatazka hori konpontze-bidean jartzeko. Ez dakiguna da ea gobernuak, eragile politikoak, sindikalak eta estatu aparailuak prest ote dauden behar diren urratsak emateko.

Argumentu guztiak plazaratuta daude, kongresuak egin dira, liburuak argitaratu... ia hitz guztiak esanda daude. Borondate politikoa, eragile guztien borondate politikoa da faltan botatzen dudana, gero eta gehiagotan, gatazkari irtenbidea emateko.

Zein da gizarte-eragileen (sindikatuena, erakunde sozialen) zeregina normalizazio politikoa eta bakea erdiesteko bidean? Nire esperantza ia bakarra hainbat urtetan euskal sindikatuetan (ELA eta LAB) jarrita neukan. Orain gero eta gutxiago. Interes gehiegi bide daude sindikatuetan arazoari aurre egiteko. Erakunde sozialen urrezko egunak ere joanak dira, ez betiko noski. Gai izanen ote dira sindikatuak behar diren aldaketak egiteko eta estrategia komun bat adosteko? Ez dakit.

Argi dagoenez, sindikatuek indar bereziak dira, gizartean eragina daukatenak eta oinarrizko printzipio batzuen inguruan gutxieneko adostasun bat lortuko balute, adostasun horrek alderdi politikoetan eragina izango luke.

Ez dakit eragile sozialek horrenbeste eragina daukaten gaur egunean.

“Anoetako Proposamena” berria da Hego Euskal Herrian, eta Irlandako bidetik, orain bai, abiatzea dirudi. Hori horrela izan dadin IRAK egindakoari begiratu behar zaio. Argiago ezin!

### **III. Erabakitzeko eskubidea. Iritsi ote da ordua?** (Herria 2000 Eliza, 205 zenb., 2006)

(Galdera batzuk proposatu ziren. Hona nik esandakoaren laburpena.)

Bai ordua da, bada sasoia, bada garaia Herri zafratu honetan oso hedatua den nominalismoarekin bukatzeko. Batzuek badakigu hitzen azpitik ez dagoela inolako esentziarik, edo nahi bada, hitzak polisemikoak direla.

*“Derecho a decidir”, “derecho de autodeterminación”* alde batetik. Beste aldetik Euskadi, Euskal Herria, Nafarroa (azken hau aspertu arte zenbaitzuek aurkitu eta aipatzen dutena)...

Hemen, herri historiko honetan, Pirinioetan bi aldeetan, Aturritik Ebroraino hedatzen den lurralde historikoan, hemen bizi den jendeak erabaki behar du, eta haiek soilik, inolako interferentziarik gabe zer nahi duten, nola antolatuko duten beren etorkizuna. Horixe da demokraziaren ABC, ez besterik.

Humpy Dumpty-k esan zuen moduan, *“When I use a word it means just what I choose it to mean –neither more nor less”*. Hortaz, aukera dezagun autodeterminazioa eskubidea. Eta hori bi arrazoirengatik. Eskubide hori herriari dagokiolako, edozein herriri, eta eskubide hori nazioartean onartuta dagoelako, Nazio Batuen Erakundean.

Halaber, aukera dezagun Euskadi edo Euskal Herria, Pirinio bi aldeetan historikoki azaldu den herri historiko hau izendatzearen, zazpi probintziak dituen, eta gaur egun, bi estatu desberdinetan bananduta.

Argi gera bedi, beraz, zertan ari garen. Ez gara ari, ezta arituko ere, eskubide historikoez. Ezta pentsatu ere.

### 1. Hitz egin dezagun independentziaz

Hasteko, eta gauzak argiro esatearren, esan dezadan independentista hutsa naizela, separatista alegia. Frantziar eta espainiar estatuetatik at, erabat kanpo, egon liteke euskal estatu errepublikar baten aldekoa. Gutxienez, Europar Batasunean (EB) oinarriak diren gaurko estatuak iraungo duten bitartean. Bihar etzi beste eraketa bat egonen dela Europan? Ongi, baldintza horietan ikusiko dugu zer-nolakoa antolaketa emango diogun geure herri osoari. Baina gaurkoz, separatismo hutsa.

Montreal-en, Québec-en hasi nintzen, beste behin eta era sakonago batez, ekonomia ikertzen. Eta Québec-en egoera (Kanadatik kanpo ala Kanada barruan?), analizatzeari ekin nion, orain dela 20 urte. Quebec-en gauza interesgarri bat ikasi nuen, alegia, hango sindikatuek<sup>13</sup> subiranotasunaren inguruan, mugimendu zibilen arloan, errebindikazio sozialen aurrean jorratutakoa txalogarria zela benetan.

Subiranotasuna, autodeterminazioa, independentzia, horrelako kontzeptuak argitu behar dira. Ados. Mundu mailako ekonomia eta europar ekonomia ikertu beharra dago. Argi. Dauden arazoak eta baldintza kontuan eduki behar dira. Noski. Historizismoak (XII. mendeko nafar estatua eta abar) ez digu ezertarako balio. Argiago ezin. Historia irekita dago. Euskal Herria oso eskasa da baliabide naturalen. Badakigu. (Japoniak ere ez; eta ez dut Japoniako eredu ekonomiko eta soziala inportatu nahi. Ezta pentsatu ere ez!) Baina Euskal Herriak, bere osotasunean, giza kapital ikaragarri on, landu eta aberatsa dauka. Ezin ukatu. Ahalmen hori frogatu izan da hala frankismo nola neofrankismo edo eta sasi-demokrazia honetan, eta hori guztia inongo subiranotasun politikorik eduki gabe. Nola egon gintezke subiranotasun politikoarekin, geure erabakiak hartzeko ahalmenarekin? Dudatan ote?

---

<sup>13</sup> Ohartuko ahal gara LAB eta ELA-ren edo ELA eta LAB-en garrantziaz!

Dena den, eta hauxe egia da, epe ertainera, zenbait erabaki ekonomiko hartu beharko genuke industrian, inbertsioetan eta geure azpiegitura ekonomikoan: arlo produktibo berrietan inbertituz, sektore estrategiko berriei buruz arduratuz (eta zaharkituak baztertuz), alegia, hezkuntza, irakaskuntza eta ikerketan inbertituz.

Gaur egunean bi estatuk erabakitzen dute guri, ekonomia mailan, dagokiguna: ontziola dela, arrantza dela, nekazaritza dela, irakaskuntza dela, edo eta nazioarteko foroetan parte hartzeko eta erabakitzeko arlo desberdinei dagozkien jardueretan.

Egun inolako kompetentziarik gabe, Euskal Herria, bere osotasunean, ez dago hain gaizki: espainiar zein frantziar estatuetakoz zenbait erregio baino hobe. Are gehiago, portugez estatu baino hobe. (Baten bati otuko litzaioke portugez estatu espainiar estatuan 'integratzea' portugesak hobe egotearren? Badakizue portugez esaera hura: "*Espainia eta ozeano atlantikoaren artean? Ozeanoa!*") Nola egongo litzateke Europan euskal errepublika independente bat? Gaur baino hobe, inongo dudarik gabe.

Are gehiago, hego Euskal Herria, oro har, espainiar estatu baino hobeki dago arlo ekonomikoan. Esan diezagula espainoltxo batek ez duela bere estatu behar, eta, kasu, frantses estatuan 'integratuko' dela. Zer dela-eta, hortaz, gure ekonomia ez aritzea errepublikar estatu propio batean, Europan kokatua, eta erabakiak hartzeko subiranotia izanik, Europako beste estatu guztiek daukaten subiranotasun-maila berberarekin? Zeren beldur gara? Zer dela-eta Espainiarekiko (eta Frantziarekiko) gutxienezko konplexu hori?

Gure ekonomia enpresa ertain eta txikien inguruan murgiltzen da. Hori da gure altxor produktiboa, hala kudeagintzan nola produkzioan, bere lan-indar oso produktibo eta lehiakorarekin. Horixe da gure faktore estrategikoa, zaindu, hobetu, gaurkotu eta mimatu behar dena.

Madrilek egindako ahalegin guztien gaineratik, hego Euskal Herria aurrera doa. Nola joango litzateke oztopo guzti horiek izan barik? Agian, inbertsioak egiteko uneetan, ikuspegi orokor bat, ikuspegi **nazional** bat falta zaigu, herri osoa kontuan edukiko duena; epe laburretik izan ezik epe ertain eta luzeko inbertsioak kontuan izango dituen; herrialde guztietan (Lapurdi, Nafarroa Beherean, Zuberoan, Nafarroa Garaian edo eta Baskongadetan) inbertituko duten enpresariak, kooperatibak, inbertsiogileak bultzatuko dituen.

Québec independentearen inguruan, Montreal-en orain dela 20 urte, entzundako ekonomiari buruzko txorakeria berberak hasi gara hemen entzuten espainiar sasi-ekonomialarien ahotik. Ez dut uste gehiegi merezi duenik horiei kasu egiteak. Baina mingarria da abertzalea omen den hemengo jendea txorakeria beretan murgiltzen hasten denean. Ulertezina niretzat. Edo agian ulergarria, zeren abertzale etiketaren azpian edozein gauza ezkuta baitaitezke. (Horrexegatik, gu bezalakook separatistak gara!) Argudio nagusia hauxe litzateke: euskal independentzia berdin deskapitalizazioa. Euskal Herria irla bilakatuko litzateke, azak jango genituzke, kapitalek ihes egingen ligukete, pobrezia hedatuko litzateke, langabezia areagotuko... Baina katastrofe guzti horiek gurera etorriko balira, orduan, zer dela-eta onartezina da autodeterminazio eskubidea Euskal Herrian aplikatzea? Zeren beldur dira espainolak (eta frantsesak)? Okerrago oraindik, independentea al da

espainiar estatua, frantses estatua, Europar Batasuna bera<sup>14</sup>? Ba ote dago gure inguruan era autarkiko batez iraun dezakeen estatu bat? Nork bultzatzen du Euskal Herrian aukera ez historiko hori?

Gaur egungo baldintza kaxkar hauetan, espainiar estatua baino hobe funtzionatzen dute hainbat euskal erakundek irakaskuntzan, osasungintzan, eta hainbat zerbitzu sozialetan. Nola funtzionatuko lukete beren ahots propioa edukiko balute? Hamaika bider hobe. Segur egon. Dudatan egotekotan, egin dezagun froga datozen hamarkadetan zehar, eta gero, berriz, nahi izanez gero, dena berrikertu.

Gaur egungo EB estatu desberdinen eraketa da, baita kapital handiaren eraketa ere: enpresa handiek eta banku erraldoiek beren nahitarako sortu eta antolatu dute EB.

Guri dagokigunez, EB horretan euskal errepublika independentea eratzeko daukagun oztopo bakarra, apartekoa noski, bi estaturi dagokiena da: espainiar eta frantses estatuei. Ez dago beste oztoporik: ez ekonomikorik, ez sozialik, ez kulturalik edo linguistikorik. Arazoa politikoa da erabat. Kontua subiranotasunari dagokio: autodeterminazioari, erabakitze subjektuari. Horretaz ez dut uste abertzalea denak dudarik izango duenik. Hortaz, ados bagaude horretan, ahalegin gaitezen horren inguruan batzen, bateratzen.

Egia da EB hori martxan jartzerakoan, soilik kapitalari begiratu diotenez, europar banku zentralak izan duen politika monetario ia bakarra inflazioari aurre egitekoa izan dela. Ondorioa ezaguna da: langabezia nonahi eta gastu sozialen murriztea.

Beste aldetik, badakigu hitzen zorabioarekin ez goazela inora. Subiranotasun ekonomikoa aipatzen denean, zehaztu behar da, jakin behar dugu zertan ari garen. Argi dago gaur egungo EBko estatuek daukaten subiranotasun politikoak (nolanahi ere den!) ez duela suposatzen, ezta pentsatu ere, subiranotasun ekonomikorik daukatenik. Beraz, separatistok, erabat independentzia zaleok, hor daukagu desafio teoriko bat, argitu beharrekoa, geroko gero baterako ezin dena luzatu.

